

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Edurne Galartza

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1914)*

Aurkibidea



Biografia



Oñatirra zen Edurne. 85 urte zituela egin zioten elkarrizketa hau Goienakoek. 1935. urtean bukatu zituen irakasle-ikasketak eta Arabako Zuia herriko Domaikan egon zen praktiketan. Gerra Zibilak bertan harrapatu zuen eta 1936ko urriaren 14an atxilotu egin zuten. Hiru astez egon zen preso Oñatira, gurasoan etxera, bueltatu arte. Ez zioten utzi eskolarik ematen. Bi urtez Donostian preso egon ostean Segoviara joan zen maistra lanetan. Sei urte erta erdiren ostean bueltatu zen Euskal Herrira. Arroa Goia (Zestoa), Zumarraga eta Antzuola izan zituen gerora lantoki.

Zintak

ANT-094

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 2000-11-08
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** DVD
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Emalea:** Goiena Komunikazio Taldea

Pasarteak

1. Gerra aurretik Domaikan maistra

- **Erref:** ANT-094/003
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:02:02. **Bukatu:** 00:04:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Irakasle-ikasketak 1935. urtean bukatu zituen Edurnek. Orduan gerra hasi zen eta kargu-orria bidali zioten, abertzalea zela eta eskolan umeei hori irakasten ziela zioena. Azken urteko praktikak bakoitzak bere lurraldean egin behar zituen, baina Gipuzkoan ez zegoenez eskolarik Arabara bidali zuten. Bera Zuiara joan zen, Zuiara 11 herri osatzen dute eta Edurne Domaikan egon zen. Zuiako herri nagusia Murgia zen. Domaikan ez zuten ez urik ezta argirik ere.

2. Gerra hasiera Domaikan erdi ezkutuan

- **Erref:** ANT-094/004
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:04:04. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Irakasle-ikasketak 1935. urtean bukatu zituen Edurnek. Arabako Zuiako Domaika herriko eskolan aritu zen maistra eta gerrak bertan harrapatu zuen. Bertako abadeak gomendatu zion bertan gera zedin, Oñatitik joandako hainbat erreketek baitzebiltzan Murgiatik (Zuiako herri nagusia) eta haiek ikusiz gero arriskuan egon zitekeelako. Abadea bizkaitarra zen eta hura ere beldurrez zegoen.

3. 1936ko urrian hartu zuten preso

- **Erref:** ANT-094/005
- **Iraupena:** 0:04:43. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:10:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Arabako Zuiako Domaika herriko eskolan aritu zen maistra eta gerrak bertan harrapatu zuen. 1936. urteko urriaren 14an atxilotu zuten. Lau erreketek Gasteizera eraman zuten. Bertan ea Gasteizen senitartekorik zuen galdetu ostean izeko baten etxera joan zen, baina izekoaren etxera heldu eta segituan joan zitzaizkion berriro bila. Gaueko hamabietan polizia sekretu bat bila joan zitzaion eta beste toki batera eraman zuen. Preso zeuden beste emakumeak gasteiztarak ziren, abertzaleak. Labastidakoak ere bazeuden, errepublikazaleak ziur asko. Haurdun zegoen emakume batek ez zekien bere senarra fusilatu zutenik. Hiru astez egon zen bertan Oñatira, gurasoen etxera, bueltatu arte.

4. Eskolak eman ahal izateko kargu-orria

- **Erref:** ANT-094/006
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:10:23. **Bukatu:** 00:11:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

Laburpena:

Preso egon ostean, esan zioten sekula gehiago ezingo zuela eskolarik eman. Baina hilabete batzuen ostean, kargu-orria eman zien.

5. Gerra-kontseiluan epaitua

- **Erref:** ANT-094/007
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:11:07. **Bukatu:** 00:14:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Donostian ere preso egon zen bi urtez. Gerra-kontseilua izan zuten: 24 gizon, abade bat eta Edurne bera. Denak ziren oñatiarrak. Kursaal azpiko lokal batean umeei dantzak, abestiak, antzerkia... erakusten zien eta bertara joaten zen ikastera Edurne. Gero, asteburuetan Oñatin irakasten zien eta hori izan omen zen bere bekatua. Bere aurkako akusazioan beraiek asmatutako gauza bat ere jarri zuten. 20 urteko eskaera egin arren, bi urtera murriztu zioten kondena.

6. Preso zegoela mojekin eskolan ematen zituen

- **Erref:** ANT-094/008
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:14:02. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Bi urteko kartzela-zigorra mojekin pasatu zuen umeei eskolak ematen. Bi urteren ostean, delegazioan kargu-orria eskatu zuen. Bertan bost urtez Hego Euskal Herriko eta inguruko lurraldeetan lan egitea galarazten zioten.

7. Euskal Herrian ezin eskolarik eman, baina Segovian ere arazoak

- **Erref:** ANT-094/009
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:17:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Bi urte preso egon ostean, delegazioan kargu-orria eskatu zuen. Bertan bost urtez Hego Euskal Herriko eta inguruko lurraldeetan maistra moduan lan

egitea galarazten zioten. Segoviako Fente el Olmo herrira bidali zuten, etxean denek esan arren ez joateko bera joan egin zen. Segovian ere maistra komunistarik ez zutela nahi esan zioten, gurasoen artean sinadura-bilketa egin baitzuten. Baina azkenean lortu zuen lanpostua.

8. Sei urte eta erdiz Segovian maistra

- **Erref:** ANT-094/010
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:17:04. **Bukatu:** 00:18:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Gerra Zibilean preso egon ostean, galarazi egin zioten Euskal Herrian eta inguruetan eskolak ematea. Segoviako Fuente el Olmora joan zen. Edurne komunista zela uste zuten, baina bera ez zen komunista, bertako herritarrak zirela komunistak dio; izan ere, oso oso txiroak ziren. Sei urte eta erdi egin zituen bertan.

9. Arroa Goian eta Zumarragan maistra

- **Erref:** ANT-094/011
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:18:34. **Bukatu:** 00:20:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Euskal Herrian maistra izatea galarazi eta gero, Segovian egon zen sei urte eta erdiz. Bueltatzeko eskaera egin eta Zestoako Arroa Goiara bidali zuten. Handik Zumarragara joan zen Antzuolara joan aurretik.

10. Antzuolara heldu zirenekoa

- **Erref:** ANT-094/012
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:22:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Zumarragan lau urtez egon ostean, Antzuolara joan zen. Osaba bat zuen bertan, aita antzuolarra baitzen, eta osabarenera joan zen. Osabak larru-lantegia zuen eta bere senarrak han egiten zuen lan.

11. Bi maistra 80 neskatilaren kargu

- **Erref:** ANT-094/013
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:23:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Bi maistra ziren Antzuolako eskolan, bera eta señoirita Mari. Neskatilak baino ez zituzten bere kargu, 80 bat. Dena egin behar zuten erdaraz.

12. Falangea eta ikuskatzaileak eskolan

- **Erref:** ANT-094/014
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:23:50. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Behin falangekoak Antzuolako eskolara bisita egiten zioten umeek dagokiena ikasi zuten ziurtatzeko. Gerora inspekziokoak pasatzen ziren.

13. Magisterio ikasketak nesken ikasketak

- **Erref:** ANT-094/015
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:25:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Edurnek irakasle-ikasketak egin zituen, sasoi hartan ohikoa zen emakumeek magisterio ikastea. Gizonezkoak ere orduantxe hasi ziren ikasketa horietara hurbiltzen. Donostiara, Bilbora zein Gasteizera joaten ziren bertakoak.

14. Antzuolako lehenengo euskara-irakaslea

- **Erref:** ANT-094/016
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:25:24. **Bukatu:** 00:26:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Antzuolan jende askorentzat Edurne izan da lehenengo euskara-irakaslea. Edurnek bere kontura ikasi zuen euskaraz idazten eta irakurtzen, Donostian bizi zela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com